



Curriculum egokitzapenak

Heziketa estrategia moduan erabiltzen dira curriculum egokitzapenak; curriculum bera doitu eta egokitzea da (programak, helburuak, edukiak, metodologia, jarduerak, ebaluazio irizpide eta prozedurak), premia jakinak dituen ikasle batentzat edo talde batentzat eskuragarriago gerta daitezzen zenbait helburu eta eduki; eta ikusten bada curriculumean ageri den alderdiren bat iristea ezinezkoa dela ikaslearentzat, hori kentzeko aukera ere badago. Ikasle batzuek, curriculum eredu nabarmen moldatu ezean, nekez jarraitu ahal izaten diote ohiko irakaskuntza prozesuari (heziketa arazoak egon daitezke horren jatorrian, arazo sozial edo kulturalak, gabeziaren bat, edo ohiz kanpoko gaitasunak eduki ditzake); horientzat egiten dira curriculum egokitzapenak.

Egokitzapen motak:

- **Curriculumerako sarbidea emango dioten egokitzapenak.** Hezkuntza premia bereziak dituen ikasleak ohiko curriculum landu dezan, edo, behar balitz, curriculum egokitu, zenbait baliabide ematen zaizkio: materialak, pertsonalak, espazioari dagozkionak edo komunikazioak.
- **Alderdi fisikoari dagozkion egokitzapenak.** Baliabide materialetara, pertsonaletara eta espazioari dagozkion baliabideetara mugatzen da: oztopo arkitektonikoak ezabatu, argiztapen eta soinu-baldintza egokiak ziurtatu, altzariak egokitu, irakasle laguntzaile espezializatuak jarri eta abar.
- **Komunikazio alderdiari dagozkion egokitzapenak.** Irakaskuntzarako material espezifikoak dagozkion egokitzapen hauek: Braille sistema jartzea, lupak, teleskopioak, ordenagailuak, grabazio tresnak eta abar.
- **Curriculum Norbanakoari Egokitzea.** Ikasle baten hezkuntza premia berezi berriaz erantzun nahi zaionean, curriculumaren elementuak harentzat doitu eta moldatzen dira; egokitzapen hauek ez dute balio beste ezin ikaslerentzat. ◀

LAGUNTZAK eta bekak

Ikasle hauen hezkuntza beharrak ez dira txikiak –ikastetxe pribatuetara doaz, garraibide bereziak behar dituzte, ikasmaterial osagarriak...–, eta familiek diru asko behar izaten dute beren seme-alaben ikasketei aurre egiteko. Horregatik, ikasle horiei zuzendutako laguntzak ematen ditu urtero Espainiako Hezkuntza Ministerioak. Aurten, iaz baino diru gehiago bideratu du horretarako (% 6 gehiago), eta laguntza jaso nahi duten familien errenta muga %27 igo du laguntza horiek jende gehiagorengana hel daitezzen.

2008/2009 ikasturterako, laguntza zuzenak emango dizkiete ikasleei eta familia ugari, haien hezkuntza premia bereziak ezintasunen batek edo jarrera arazoek eragindakoak badira. Adimen gaitasun handia duten ikasleak ere lagunduko dituzte diruz, arauzko hezkuntzaren osagarri, programa espezifikoak jaso ditzaten. Laguntza hauek eska ditzakete hiru urte bete dituzten haurrek, bai ikastetxe espezifikoetan daudenean, bai hezkuntza bereziko gelaren bat duten ikastetxe arruntetan ikasten dutenean, eta bai, hezkuntza administrazioaren baimenarekin, premia bereziak dituzten ikasleekin lan egiten duten ikastetxe arruntetan ari direnean ere.

Espainiako Hezkuntza Ministerioak 100 euro emango dizkie baldintzak betetzen dituzten familiei, liburuak eta ikasmateriala erosteko (200 euro Batxilergo eta Lanbide Heziketa egiten ari direnentzat), eta ikasle egoitzaren batean bizi behar dutenei, 1.760 euro arteko laguntza emango die. Matrikula eta hilabeteko kuotak ordaintzeko ere izango da dirua (845 euro arte), garraio gastuak ordaintzeko (605 euro pribatua bada, eta 302 euro, hiri garraioa bada), edo eskolako jantokia (563 euro arte), besteak beste.

Auto zaharra kentzea

Auto zaharrari agur, modu ekologikoan

Gure autoa behin betiko kendu nahi badugu, Trafiko Zuzendaritzak horretarako jarri dituzten gune berezi-berezietan egin dezakegu orain: doakoa da, sinplea eta ekologikoa

Hainbat urtez gurekin ibili ondoren, bidezkoa da autoa behar bezala agurtzea, modu ekologikoan, alegia. Ingurumenak eskertuko digu, zalantzarik gabe. Gure ibilgailua onenak emanda badago eta errepidetik kendu nahi badugu, zenbait betebeharrak ezartzen dizkigu legeak 2004. urteaz geroztik, gure ibilgailuaren hondakin kutsatzaileak esku onetan gera daitezzen. Guztietan garrantzitsuena honako hau da: Tratatze Gune Baimenduetara bideratu behar dugu autoa, bai guk eramanda edo bai autoak biltzen dituzten guneetan utzita, eta han, ingurumen legeei jarraituz kudeatuko dituzte autoa eta haren osagaiak. Gure autoak hamabost urte baino gehiago baditu, ez dugu ezer ordaindu beharrik izango hori egiteagatik. Ingurumena zaintzeko prozesu honetan, erabiltzailearena da erantzukizuna.

Auto zaharra kentzeko, zein da lehen urratsa?

Auto zaharra kendu nahi badugu, Tratatze Gune Baimendu batera eram beharko dugu, edo autoak biltzen dituen guneren batean utzi, haiek eram dezaten. Horretarako, lehenik eta behin, gure inguruan halako gunerik baden edo ez jakin beharko dugu (www.trafico.es helbidean agertuko zaigu gune baimenduen zerrenda). Nahi izanez gero, kudeatzaile agentzia baten esku utz dezakegu guztia, ordainduta noski.

Zer dira autoak biltzeko guneak?

Jabe pribatua izaten dute, eta beren jarduera ekonomikoa autoen merkaturari lotuta dagoenez, autoak hartzen dituzte bolada

baterako, eta gero, tratatzeko guneetara bideratzen dituzte, han gai kutsatzaileak ken diezazkieten. Auto ekoizleak, auto saltokiak, autoak desegiteko eta zatikatzeko lekuak... horiek izaten dira autoak biltzeko guneak. Auto ekoizleen ardura da, adibidez, merkaturatzen edo merkaturatu dituzten markak jasotzea eta autoak biltzeko guneak prest edukitzea Espainia osoan.

Zer dokumentazio behar da?

- Nortasun Agiria, egoiliar txartela (etorkinek) edo ahalordea (ibilgailu jabea erakunde bat bada)
- Zirkulazio baimena eta Ibilgailuaren Azterketa Teknikoaren Txartela
- Udal Zirkulazio-Zergaren azken ordainagiria, salbu eta autoak hamaobost urte baino gehiago baditu →



INGURUMENA
ZAINZKEKO, AUTOA
TRATATZEKO GUNE
BAIMENDUETAN UTZI
BEHAR DA



Eta hurrengo urratsa?

Inprimaki bat bete beharko dugu –ofiziala, noski-, eta han eskatuko dugu autoa ez dadila gehiago agertu gure izenean (jabearen datuak eta sinadura jarri behar izaten dira). Ondoren, gunea bera arduratuko da autoa desegiteaz, eta arauzko desegite-ziurtagiria egingo du, autoa desegin duela baieztatzeko; azkenik, Trafiko Zuzendaritzan jakinaraziko du autoa behin betiko kendu dugula.

Tratatzeke Gune Baimenduak desegite-ziurtagiria egiten duenean, egiaztatua geratzen da autoa han utzi dugula. Autoen erregistroan erakutsi nahi badugu autoa behin betiko kendu dugula, ziurtagiri horrek balioko digu, baina datuak ongi emanda egon behar dute: utzi dugun autoaren datuak, jabearen datuak eta Tratatzeke Gune Baimenduarenak.

Zenbat kostatzen da?

Doakoa da. Autoak merkatu baliorik ez badu, jabeak ez du ezer ordaindu behar uzteagatik. Autoak, hala ere, karroneria eta multzo motobulkatzailea eduki behar ditu gutxien-gutxienez, eta piezaren bat edo osagaien bat desmuntatu beharra izango balitz, hori

ordaindu egin beharko luke jabeak.

Beste ibilgailu batzuk uzteagatik (ziklomotorrak, motorrak eta ibilgailu bereziak), 7,60 euro ordaindu behar izaten dira Trafiko Zuzendaritzan; ingurumen tratamendurako ziurtagiria izanez gero, ez da ordaindu beharrik, eta ibilgailuak 15 urte baino gehiago baditu Espainian matrikulatu zutenetik, orduan ere ez.

Tratatzeke Gune Baimenduak edo autoak biltzeko guneak agiririk eman behar digu?

Autoak biltzeko guneak 30 egun dituguk autoa utzi eta Tratatzeke Gune Baimendu batera eramateko. Ziurtagiri bat egin behar izaten dute, eta guri dagokiguz eskatzea.

Tratatzeke Gune Baimenduak, bestalde, autoa jasotzen duenean, guk utzita edo autoak biltzeko gunetik eramanda, desegite-ziurtagiria egingo du, doan, eta auto jabeari helaraziko dio. Tratatzeke Gune Baimenduak beretzat hartuko du ziurtagiri horren kopia bat, eta beste kopia bat bidaliko du dagokion autonomia erkidegora, hamabost egun igaro baino lehen.

Zirkulazio Zergaren ordainagiria behar izaten da, baina gerta daiteke udalak oraindik ez kobratu izatea. Zer egin halakoetan?

Trafiko Zuzendaritzan ez dira hasiko autoa kentzeko txostenik egiten, baldin eta lehenago ez badugu erakusten Zirkulazio Zergaren azken ordainagiria. Zerga honek holaxe funtzionatzen du, 36/2006 Legeari jarraiki (azaroaren 29koa da, eta Zerga lruzurrak Saihesteko Neurriak biltzen ditu).

Azken ordainagiriaren kopia bat eraman behar dugu, baina gauden urte horretako zerga ordaintzeko epea hasi baino lehen egin behar dugu. Trakzio mekanikoa duten ibilgailuei ezartzen zaien zergak kontuan hartzen ditu errepide publikoetan barrena ibiltzeko gai diren ibilgailuak, eta zerga hori ordaindu behar izaten dute urtarilaren 1ean jabe modura ageri direnek. Autoa behin betiko kendu nahi badugu, ordea, hiruhilekoetan banatzen da ordaindu beharrekoa, eta, beraz, guri legokigukeen zatia ordaindu beharko genuke (Tokiko Ogasun Legeak halaxe zehazten du). Oro har, zergaren adierazpen-likidazio inprimakia bete eta aurkezten dugunean gauzatzen da banaketa hori. Zehatz esateko, Legez, hiru kasu hauetan banatu daiteke zerga hau zatitan: ibilgailua lehenengoz erosiko dugunean edo gure izenean jarri; behin betiko kenduko dugunean; eta behin-behinekoz kenduko dugunean, ibilgailua lapurtu digutelako.

Jabeak jada ordaindu badu zerga, autoa kentzeko prozesua hasi baino lehen, eska dezake dirua itzul diezaioten?

Udalean galdetzea litzateke onena. Nolanahi ere, gauden urte horretako zerga ordaindu ondoren, eta Trafiko Zuzendaritzan autoa kentzeko eskabideak egin ondoren, eskabide hori egin dugula erakusten duten agiriak aurkeztu ahal izango ditugu udalean, eta inprimaki bat bete ondoren, proportzioan dagokizun zatia itzul diezaguten eskatu.

Demagun, autoaren aseguru hiruileko kuota ordaintzen dugula, eta hiruhileko bat geratzen zaigula guztia ordaintzeko. Ordaindu beharra ote dugu autoa kenduta ere?

Aseguru konpainiak eta bezeroak beste zerbait adosten ez badute, urte osoko aseguruari dagokion kopurua ordaindu beharra dago.

Zergatik?

Aseguru pribatuak antolatzeko araudiak dioenez, kopurua zatiezina da, aldaezina, nahikoa eta zuzena; beraz, konpainiarekin ados jarri bagara urtean kopuru bat ordaintzeko, kopuru hori zatiezina izango da urtebete horretan. Konpainiak aukera eman diezaguke hiruhilekoetan ordaintzeko, seiuhilekoetan edo hilabeteka, guk errazago aurre egin ahal izateko, baina konpainiek eskubidea dute kopuru osoa jasotzeko.

Gidari batek istripua izan du, eta aseguru konpainiak onartu du erabateko hondamena izan duela autoak. Gidariak onartu du kalte-ordaina (autoak balio duena dirutan jasotzea). Autoa kentzeko eskabidea egin du, baina diru gutxiago eman dio aseguru konpainiak. Zer egin daiteke?

Onena izaten da argibideak idatziz eskatzea edo erreklamazioa egitea, hori ere idatziz. Fax zertifikatua bidaltzea izaten da egokiena, baina gastu horri aurre egin nahi ez badiogu (22 euro balio du testua erregistratzeak), fax arruntaren bidez egin dezakegu lehen eskaria, baina kopia bat gorde behar dugu, ikusi ahal izateko noiz, nori eta nork bidalia den.

Aseguru konpainiak informazio guztia eman behar liguke, baina, segur aski, aseguru ordaintzeko geratzen zaigun zatia kobratu izango digu kalte-ordaine-

tik, nahiz eta guk autoa kendu, eta horregatik eman izango digu diru gutxiago.

Urte osoko kopurua ordaindu dugu, baina autoa kentzean, aseguru konpainiak esan digu "gorde" egingo digula azken lau hilabetei dagokien kopurua, eta auto berriaren aseguruagatik hori gutxiago ordaindu beharko dugula. Deskontua, ordea, uste baino txikiagoa izan da.

Bezeroak ordaintzen duen guztia ez da izaten konpainiarentzat; zati bat Aseguru Konpentsazioen Partzuergoak hartzen du, eta beste zerga batzuk ordaintzeko ere erabiltzen da beste zati bat. "Erabili gabeko" hilabetei dagokien kopurua eta deskontuari dagokion bat ez badatoz, hori izan liteke arrazoia, baina, dena den, aseguru konpainian galdetzea da egokiena. +

